

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Lapurren aurka telefono bidez

STANCOM ENPRESA aspalditxo ari da telefono higigarrietan bi SIM txartel eramateko egokigailuak merkaturatzen. Teknologia horri beste erabilpen interesgarri bat eman dio segurtasun alorrean: behaketa-kameran SIM txartela kokatzea lortu du. Zertarako?

Behaketa-kamera abian jartzen da mugimenduren bat detektatzean. Orduan, hainbat argazki egiten ditu –hiru eta zortzi bitartean– eta automatikoki MMS bidez bidaltzen ditu telefono higigarri batera edo posta elektronikoko helbidera. Beraz, MMS euskarria onartzen duen telefono higigarria eta SIM txartela kamerari konektatua nahikoa da behaketa-sistema erraza bezain merkea antolatzeko. Kameraren parametroak ezartzea erraza da, txartela kokatzea eta deitu behar duen zenbakia sartzea nahikoa baita. Kamerak, mugimenduaren detektatzaile gisa, izpi infragorri bidezko “ikusmena” du eta beste detektatzaileekin –keada goela edo atea ireki dela antzematen dutenekin, esaterako– konekta daiteke.

Kamera gure telefonotik igorritako testu-mezuen bidez kontrola daiteke. 24 orduko autonomia ematen dion bateria ere badu, badaezpada argi-indarra eteten den.



Gizakia eboluzioaren azeleratzaile

GIZAKIAK EHIZATZEN, ARRANTZATZEN EDO BILTZEN dituen espezieek orain arte ezezaguna zen eran eboluzionatzen dute. Batzuek tamaina aldatuz erantzuten dute eta beste batzuek ugaltze-adina aldatuz, baina aldaketa horiek oso belaunaldi gutxitan gertatzen dira, Kaliforniako Unibertsitateko ikerlari talde batek dioenez.

Esaten ari garenaren adibide garbia *Gadus morhua* izeneko bakailao motak eskaini digu. Kanadako uretan harrapatzen den espezie horren populazioak izugarriko beharrekada jasan duen 90eko hamarkadan, gehiegizko arrantza eraginez; baina urte gutxi batzuetan tamaina %20 txikitu eta ugaltze-adina urtebetez aurreratu zuen. Horri esker, askok sareetako zuloetatik ihes egitea lortzen dute. Ikerlarien arabera, gizakia espezieen eboluzioaren eragindako azelerazioa %50 eta %300 bitartekoa da, berez eboluzionatzen duten espezieenarekin alderatuz.

Haizea eta eguzkia, energia iturri egokienak

Energia iturri klasikoek eragiten duten kutsadura dela-eta, ahots asko ari dira energia nuklearraren eta bioerregaien alde. Stanford Unibertsitateko Mark Jacobson ikerlaria ez dator bat, eta energia iturri garbien defentsa sutua egin du artikulu honetan.

www.amazings.com/ciencia/noticias/160109c.html

Giro freskoagoa ekarri ahal digute zenbait landarek

Britainia Handiko ikerlari batzuen arabera, landare guztiek ez dute berdin jokatzeko eguzki-izpien aurrean: batzuek besteek baino izpi gehiago islatzen dute. Beraz, berotegi-efektuaren aurka borroka gaitzeko landare mota jakin batzuk gehiago landatuz.

<http://ttiki.com/1943>

Bizitzarako egokiak diren ilargien bila

David Kipping astronomoak metodo bat proposatu du Eguzki-sistematik kanpoko planeten ilargiak errazago detektatzeko. Aurkikuntza garrantzitsua da bizi estralurtarraren bilaketarako: gaur egun beren izarretatik distantzia egokira dauden 30 planeta inguru ezagutzen ditugu, baina gainerakoan ez dirudi bizirako baldintzarik dutenik. Aldiz, haien inguruko ilargietan bizia egoteko probabilitatea handiagoa da, ilar-gi horiek existitzekotan.

<http://ttiki.com/1944>

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza 
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16